

BASO LANDAKETA ETA KUDEAKETAREN INGURUAN EAJ UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO

MOZIOA:

BASO LANDAKETA ETA KUDEAKETAREN INGURUKO MOZIOA

EAJ udal taldeak honako hau onartu dezala eskatzen diogu Oñatiko Osoko Bilkurari:

1. Basogintzak eta baso kudeaketak ekonomian, enpleguan, bioaniztasun sortzaile gisa, ingurugiro zainketan eta zerbitzu ekosistemiko sortzaile gisa jokatu duen eta jokatzen ari den papera aitortu eta publiko egin dezala.
2. Onura gutzi hauek baso kudeatu batek eskaintzen dituela aitorturik, gizartearentzako egungo arazo nagusienetarikoa bat baso kudeaketaren abandonoa dela aitortu eta berau ekiditeko erakunde desberdinen artean (Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak eta Udala) eta baso sektorearekin elkarlanean, baso kudeaketa sustatzeko politikan parte hartu dezala beti ere bere eskumenen baitan.
3. Baso kudeaketa eza izanik arazo nagusia, baso kudeaketa sustatzerakoan ez dadila espezieen neurri gabeko borroka antzuetan erori, espezie bat edo beste arriskutsu edo kaltegarri landatzen den kopuruaren arabera bihur bai daiteke, ez espeziearen izaera bera kaltegarria delako.
4. Oñatiko udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak ezarrita daukan baso politikarekin bat eginez, eukalipto ez den beste landaketa batzuk lehenetsi ditzala. Espezie desberdinak lehenesteko garaian udalak ez ditzala bide debekatuak eta arautzaileak erabili, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin adostutako bide pizgarri eta sustatzaileak baizik, baso jabe pribatuei beraien ekimenetan lagunduz.

Dimitris Alos



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **SIERef15954-c098-4446-a79f-80c1d8cc2244**

Dokumentu elektronikoa honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:

<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=05910>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=05910>